

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

1.1. Nortzuk gara?

Hezitzaile talde bat gara, eta gure ideia taldekide baten lan-esperientziatik sortu da. Lanean urritasun ezberdinak dituzten pertsonak daude, eta horietako bat itsua izatea da. Ezindu hauei laguntzeko asmotan ondorengo proiektua sortu dugu.

Gure enpresa HIRI deitzen da, eta taldeko partaide bakoitzaren inzialekin sortu dugu, hau da, Haizea, Irati, Rakel eta Iñigo. Gure enpresa kooperatiba bat da.

1.2. Zer ondasun edo zerbitzu eskaintzen diogu gure bezeroari?

Gure produktua, kamara bat eta mikrofono bat gehitzen zaion gerriko bat da, itsuei errealitatea erakutsi eta bere beharrak asetzen lagunduko diena. Kamararen bidez audiora pasako zaizkio aginduak eta kamarak ikusten duen errealitatea, horrela, pertsonak erreztasunez aurre egin diezaioke egoera desberdinei. Erabiliko dugun materiala neoprenoa izango da.